

# Emakume publikoak vs Gizon pribatuak: espazio publikoaren eta pribatuaren arteko mugak.

*Laburpena: Gizartean nagusi diren arau eta balioen multzoa den heinean, sistema patriarkalak gizartearen eremu eta esparru guztietan du eragina, baita espazioaren ekoizpenean ere. Espazioaren konfigurazioak publiko eta pribatu dikotomia eta lanaren banaketa sexuala erreproduzitzen ditu, baina era berean, espazioak berak dualismo horiek erreproduzitzen ditu, eta beraien hedapena laguntzen du. Hiri modernoaren garapenak lanaren banaketa sexuallean du oinarria, non espazio bakoitzari funtzio eta jarduera zehatz batzuk esleitzen zaizkion, eta non hiriaren diseinuan jarduera produktiboak lehenesten diren, eremu erreproduktiboko beharrianak ikusezin eginez. ~*

*Abstract: The patriarchal system, as a set of dominant rules and values in society, influences all spheres and areas of society and also the production of space. The spatial configuration reproduces the public-private dichotomy and the sexual division of labor, but at the same time, the space reproduces and contributes to the expansion of these dualisms. The development of the modern city is based in the sexual division of labor, where particular functions and activities are associated to each space and where productive activities have priority in the urban design, not making visible the needs of the reproductive sphere. ~*

Blanca Gutiérrez Valdivia  
Soziologa UCM, Ikertzailea CPSV (UPC), eta Col lectiu Punt6eko kidea.

Roser Casanovas Marfà  
Arkitektoa UPC, doktorego ikaslea, eta Col lectiu Punt6eko kidea.



~Gako-hitzak: genero rola, espazioaren konfigurazioa, eremu erreproduktiboa  
~Keywords: gender roles, spatial configuration; reproductive sphere

Jasotze data: 2015-06-02 / Onarpen data: 2015-01-20



## Erredakzioan itzulia.

Espazioaren konfigurazioa gizartean nagusi diren arau eta balioek definitzen dute. Sistema patriarkala unibertsa da, eta gizartearen eremu eta esparru guztietan du eragina, baita espazioaren ekoizpenean ere. Jane Darkek nabarmentzen duen bezala, «Patriarkatuak forma ugari hartzen ditu, eta denborarekin aldatu egiten da. Sistema ekonomiko gehienekin batera existitzen da, kapitalismoa barne, eta jokaleku askotan: familian, lantokian, gobernuan... Hain dago errotua giza harremanetan, ezen jende askok ez baitu identifikatzen, eta dominazio maskulinoa naturalizat jotzen du» (Darke, 1998).

Espazioak genero-ezberdintasunak errepikatu eta islatu egiten ditu, eta era berean ugaldtu, portaera eta erabilera arauemaileen transmititzaile baita. Espazioaren konfigurazioak publiko eta pribatu dikotomia eta lanaren banaketa sexuala erreproduzitzen ditu, baina era berean espazioa, ahoko hizkuntza bezala, gizarte-erreproduzitzailea ere bada, eta pentsaera taxutzen du. Publiko eta pribatu artean banatutako espazioak baino ez badira existitzen, konfigurazio fisikoak espazioa ulertzeko dugun modua egituratzen du, dikotomia horretara mugatuz.

Egun burutzen ditugun ekintzak osagarriak diren eta elkarrekin erlazionatuta dauden oinarritzko lau eremutan koka ditzakegu: eremu produktiboa, eremu erreproduktiboa, norberaren eremua eta eremu publikoa. Eremu erreproduktiboa da familia bateko kideek beraientzat edo familia horretako zein beste familia bateko kideentzat burutzen dituzten ordaindu gabeko lanen multzoa. Jarduera horiek familiako etxeko lan bezala ezagutu dira tradizioz,

etxebizitza barruan zein kanpoan gauzatzen diren arren. Jardueren eremukako banaketa honek ekintzok zeintzuk diren, non eta noiz egiten diren, eta nork burutzen dituen hobeto identifikatzeko balio du, bai eta generoak denbora eta espazioaren banaketa egituratzen duela agerian uzteko ere (Casanovas y Gutiérrez, 2013)

Pertsonen denbora zenbait eremutan banatzea (produktiboa, erreproduktiboa, norberarena, politikoa) eta banaketa hori espazioaren konfigurazioaren bidez hezurramitzea mendeetan zehar garatu den prozesua izan da, kapitalismoaren hasierak ekarri zuen lanaren banaketa sexualaren finkatze hasi, eta garai modernoaren etorrerarekin azaldu zen espazio publiko eta pribatu arteko segregazioaren arautzeraino. Hainbat egileren ekarpenen bitartez, prozesu horren xehetasun batzuk zehazten dira ondoren.

Lanaren banaketa sexuala kapitalismoaren hasieran eta mirabetza-lanen bukaeran kokatzen du Silvia Federicik (2011). Lanaren banaketa sexual berriak gizonen eta emakumeen arteko harremanak birkonfiguratu zituen. Emakumeen lanaren eta haien gizarte-egoeraren devaluazioa ekarri zuen horrek, eta legeria nazional ezberdinen eta querelle des femmes izendatua izan zen literaturaren bitartez normalizatu zen. Federicik «Emakumeen botere sozialaren galera espazioaren bereizte berri baten bitartez ere adierazi zela» (2011:74) kontatzen du, eta ereduaren bitartez adierazi nola Mediterraneoan herrialdeetan kalean bakarrik zebiltzan emakumeak barregarri utzi edo sexualki erasotu zitezkeen, Ingalaterran beraien etxe aurreetan esertzeko, leiho ondoetan egoteko edota lagunekin elkartzeko asmoak



**Irudia** – Bizitzako esparru ezberdinen garapena errazten duen zuzkidura multzoa Fort Pienc-en Bartzelonako Eixamplean.

**Egilea** – Punt6 kolektiboa

kentzen zizkieten bitartean.

Segregazio bikoitz hori, generoaren arabera rolen banaketa eta etxearen eta lantokiaren arteko bereizketa, Europako eremu hiritar guztietan jazo zen. Lan maskulinoaren espezializazio bat burutu zen, zeina identitate osagai bat hartzen joan zen gainera. Usadiozko ogibideak arautu eta antolatzeko forma berriak azaldu ziren, eta enpresaren beharrezko arabera finantza-instituzio espezifikoak sortu. Politika erabateko arduraldi (maskulinoa) bilakatu zen, burokratizatutako funtzionarioek lagunduta. Egitura sozioekonomikoan izandako aldaketok, zenbait eraikinen ugaritzea ekarri zuten: fabrikak, bulegoak, tren-geltokiak, klubak, erakunde profesionalak, unibertsitateak, burtsak, kontzertu-aretoak, udaletxeak, kirol-zelaiak, liburutegiak, dendak, eta saltoki handiak. Emakumeek mugaturik zuten eraikin horietako gehienetara sartzea (Darke, 1998). Zenbait komertzio motata soilik sar zitezkeen, zainketei eta afera erreproduktiboetako lotutako haien rola finkatzen jarraitzen zuten espazioetara.

McDowellen arabera (2000), espazio publikoa botere- eta ekintza-eremu maskulino bezala identifikatu arren, hirietako espazio publikoek eremu maskulinoetik eta gizarte burgesaren arauetatik askatzeko aukera bat ekarri zuten emakumeentzat. Egile horren iritziz, espazio erdipublikoek, saltoki handiak adibidez, mundu etxetiarraren mugetatik atera eta gizonaren presentzia kontrolatzailetatik ihes egiteko aukera eskaintzen zieten, denbora-tarte laburrez baino ez bazen ere. Hala, emakumeentzat, hiri industrialetako espazio publiko eta erdipublikoak ez ziren arrisku bat bakarrik, baizik eta nolabaiteko askatasun bat disfrutatu ahal izateko aukera ere.

XIX. mendean, Industria Iraultzak eta urbanizazio bizkorren hasierak erabateko aldaketak ekarri zituzten gizartera. Eremu sozialean genero-rolak askoz ere ezberdinagoak egotera iritsi ziren, dimentsio espazialean, funtzioen bereizketa eta eskala handiko suburbanizazioaren



**Irudia** – Bizi-eremu ekipatua Santa Caterina merkatuaren parean, Bartzelonako Ribera auzoan.

**Egilea** – Punt6 kolektiboa

hasierarekin, hiriek konplexutasun handiago bat hartu zuten heinean. Suburbanizazioan, emakumeen funtsezko zeregin bezala hautematen zen emazte eta amaren papera espazialki gauzatzeko, bizitza publikoak sorturiko atzeratureretatik ihes egin eta atseden hartzeko babeslekuak izango zen etxe baten administratzailearena. Mendeak aurrera egin ahala, denbora eta espazio bat eskaintzen zuten emakume atsegin eta moralaren estereotipoa transmititu zitzaizkien langile klaseko zein klase ertaineko emakumeei (Darke, 1998).

Espazio publiko eta pribatuaren eta lanaren banaketa sexualaren polarizazioak jarraitzen du amerikar aldirietako ereduaren hedapenean. Gainera, eredu hori mundu guztian zabaltzen eta erreplikatu izan da gure egunetara arte. Dolores Haydenek (1982) lanaren banaketa sexualean oinarritzen den hiri-hazkunde eredu hori kritikatu du, bizitegi-espazioa etxeoandrentzako urrezko kaiola bilakatzen duena, berriz ere eremu produktibotik baztertuz. Bigarren Mundu Gerran paper protagonista izan zuten eremu produktibo horretan.

«Etxea eta familia-zainketak emakumeen nahien helmuga bakar bihurtu zituen gerraosteko diskurtsoak: sukaldea fabrika, etxe handi eta modernoa, seme-alaba osasuntsu eta zoriontsuak, eta hirian kokatutako korporazioetan lan egingo zuten senar arrakastatsua. Emakumeen arrakasta etxeoandre zoriontsua izatean zetzan. Paradisu faltsu hori salatuz, Betty Friedanek Mistika Femeninoa idatzi zuen 1963an. Liburu hori haren esperientziatik abiatzen da, beste emakume batzuekin partekatutako kontent ez egote sentimendu batetik. Sentimendu hori zela-eta, 50 eta 60ko hamarkadetan emakumeen artean depresio orokortu bat antzeman zen, medikuek izenik gabeko gaixotasun izendatuko zutena. Bakardade eta hutsaltasun handiko sentimendua partekatzen zuten, telebista eta aldizkari diskurtsoei jarraituz, emakumeek izan beharko litzuketen sentimenduetatik oso urrun kokatzen zena» (Muxí, 2013: 30).



**Irudia** - Egoteko eta atseden hartzeko espazioek pertsonen autonomia bultzatzen dute, Bartzelonako Ribera auzoan.  
**Egilea** - Punt6 kolektiboa



**Irudia** - Bartzelonako Caldes de Montbuiiko garbitegiara bisita andreakin labore erreproduktiborako espazioen balioa berreskuratzeko.  
**Egilea** - Punt6 kolektiboa

Hainbat egilek bat egiten dute espazio publikoa espazio maskulinoztat hartzeko orduan (Murillo, 1996; McDowall, 2000; Darke, 1998). Murillok (1996) espazioen banaketa horrek ondorio bultzatzaileak dituela ohartarazten du, espazio bakoitzari erantzukizun maskulinoa edo femeninoa esleitzen dion heinean, eta pribatutasun faltak banakotasunaren (autoestimua) eraikuntza zailtzen duela, espazio publikoan posizio defizitarioa eraginez. Ildo horri jarraituz, Darkek (1998) galdera hau luzatzen digu: espazio publikoa gizonezkoaren esparrua bada, espazio pribatua emakumezkoena al da? Eta emakumezkoen norberaren espazioaren beharra azpimarratzen du, eremu publikoan jasaten duten kontrola ez pairatzeko. XX. mendearen hasieran dagoeneko, Virginia Woolfek (1929) emakumeek norberaren espazioa izatearen beharra adierazi zuen, beraien gaitasun intelektualak garatu ahal izateko ezinbesteko baldintza bezala.

*«Emakumearentzat, etxeko espazioa ez da ez hautatutako ez gozatutako espazio bat; obligazioaren lekua da, sozialki esleitu zaion genero-rola betetzeko tokia. Etxebizitzaren barnealdeko espazioan dago, eta bertan ohiturek, botere-harremanak betiketuz dituzten mekanismo sozialak, arau eta formak ezartzen dituzte; eta emakumeari dagokio hori hala izan dadila zaintzea, horrek bere bazterketa irunarazten duen arren» (Muxí, 2009: 11).*

Murillok «bizitza pribatua» kontzeptuak izan dituen tratamendu ezberdinak erakusten ditu. «Ikuspegi maskulino batetik abiatuta, gizonezkoaren barnera biltzarekin zerikusia duenarekin lotutakoa da, baina obligazio eta zerbitzu publikoa alde batera utzita. Bigarren tratamendu bat etxean garatzen da, familiarekin eta horrek sortzen dituen beharrezanekin. Hemen norberarenak ez dauka zentzu positiborik, eta subjektua bestearenari erantzutean espezializatzen da» (Murillo, 1996: 17).

Lehenago aipatu ditugun egileek adierazitakoaren arabera, bizitza pribatu eta bizitza publiko, eta eremu publiko eta

eremu pribatu kontzeptuek esanahi ezberdinak dituzte gizon eta emakumeentzat, eta gizartearen egitura generiko batek zeharkatuta daude. Publikoaren eta pribatuaren eraikuntza sinbolikoek, gizarte patriarkal baten testuinguruan, gizarte horretan nagusi diren balio eta eraikuntzen araberako hiri-konfigurazio eta hiri-ereduari bide ematen diote.

Hiri modernoaren garapenak lanaren banaketa sexualari eusten dio, non espazio bakoitzari funtzio eta jarduera zehatz batzuk esleitzen zaizkion. Hiri modernoan osaketatik espazio bakoitzari lotutako gizarte-zamaz gain, egungo hiriak paradigma desarrollistan oinarritutako hazkunderedu baten oinordekoak dira, zeintzuetan produktiboa den eta ordaintzen den lana baizik ez den aintzat hartzen, erreproduktiboa denarekin eta zainketekin lotuta dauden jarduera eta beharrezan guztiak arbuatuz.

Espazioak publiko eta pribatu bezala banatzearen ondorioa da horietako bakoitzari jarduera eta beharrezan jakin batzuk lotzea eta jarduera produktibo eta erreproduktiboari balio ezberdin bat esleitzea, espazio publikoak produktiboa denarekin lotutako beharrezan bakarrik asetzeko diseinatu direla pentsatzea, eta neurri txikiagoan aisialdia, kirola, politikak... eta antzeko jarduerak asetzeko. Hala ere, ez da kontuan izan eremu erreproduktiboarekin lotutako jarduerak pribatua denaren eremutik harantzago joan eta zenbait espazio publikotan garatzen direla. Espazio publikoetan erreproduktiboa dena ikusezin egitearen emaitza dira jarduera horiek garatzeko prestatuak ez dauden espazioak, elkarren artean lotzen ez direnak, oinezkoen ibilbide ezinezkoak dituztenak, zaintzen sostengurako zerbitzu publikorik ez dutenak, iturri, komun publiko edota espazio publikoan burutzen diren ekintza erreproduktiboentzako lagungarri diren eserlekurik gabeak...

Gizartea eraldatu egin da, publiko-pribatu dikotomia zalantzan jarriz (ordaindutako lanen tipologia berriak, malguak, norberaren etxean, langabezia maskulinoaren tasa





Irudia ~ Bartzelonako Estació del Nord-eko parkea.  
Egilea ~ Punt6 kolektiboa

altuak, emakumeen protagonismo publiko handiagoa...). Eztabaida hau, ez du aldaketa horietatik sortutako beharriaren arabera hiriaren eta haren denboren antolaketa fisiko berri batek lagundu. Desdoikuntza horrek emakumeen bizi-kalitatean eragiten du bereziki, mundu pribatua eta publikoa bateragarri egiteko traba larriekin. (Rainero eta Rodigou, 2003)

«Jardueren arabera espazioen banaketak pertsonen bizitza zailtzen du, bereziki emakumeena, gaur egunean oraindik ere gehienbat eginkizun erreproduktiboez arduratzen direnak baitira. Egunerokotasunean garatzen diren ekintzen aniztasuna errazteko, beharrezkoa da espazio publikoak eta espazio pribatuak jarduera kopuru zehatzaz gauzatzen diren espazio mugatu gisa hartzeari uztea. Espazioek malguak izan behar dute askotariko jarduerak garatu ahal izateko, eta beraien eskala dela-eta, jarduera jakin batzuen garapena erraztuko duten trantsizio-espazioek ere egon behar dute, «bereziki aintzat hartu behar da tarteko espazioen gaitasun soziala. Gertuko geografia berdin batean bizi diren pertsonen arteko elkarketak direla-eta, ezinbestekoak dira hartu-emanak laguntzen dituzten espazio hauek. Auzoetako harremanen espazio hauek espazio publikoen egitura konplexuagoa bihurtzen duten elementuak ere badira, beraien izate hutsarekin kaleko segurtasuna faboratzen baitute. Kalearekin harremanetan dagoen espazio etxetiar bat bizitzeak dakarren segurtasun horren lehenbiziko onuradunak emakumeak dira, bai barne-espazioan bai kanpo-espazioan edo espazio publikoan» (Muxí, 2009:30).

Lanaren banaketa sexuala eta publiko-pribatu segregazio espaziala denborari eta espazioari dagozkien testuinguru zehatz batzuetan kokatzen dira, konstante unibertsalak bailiran transmititzen zaizkigun arren. Heterogenotasun soziala sustatzen duten eta bertara doitzen diren espazio pluralagoen erakuntza dikotomia faltsu hori gainditzetik eta beharriaren aldakorretara moldatuko diren ebazpen espazial malguagoen bilaketatik etorriko da, non espazioaren



Irudia ~ Manresa kalearen erabilera, Bartzelona.  
Egilea ~ Punt6 kolektiboa

konfigurazioak sakonki barneratutako dualismoak errotik kentzea lagunduko duen.

### Bibliografia:

Darke, J. (1998): «La ciudad zonificada: estereotipos de género», in Ch. Booth (ed.), J. Darke (ed.) eta S. Yeandle (koord.), *La vida de las mujeres en las ciudades: la ciudad, un espacio para el cambio*, Ed. Narcea, 122-126.

Casanovas, R. eta Gutiérrez Valdivia, B. (2013): «La vida cotidiana en las áreas residenciales monofuncionales de baja densidad», in Z. Muxí (koord.), *Postsuburbia: rehabilitación de urbanizaciones residenciales monofuncionales de baja densidad*, Comanegra, Bartzelona.

Federici, S. (2011): *Calibán y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*, Editorial Traficantes de Sueños, Madril.

Hayden, D. (1982): *The grand domestic revolution: A history of feminist designs for American homes, neighborhoods, and cities*, MIT Press, Cambridge MA.

McDowell, L. (2000): *Género, identidad y lugar: un estudio de las geografías feministas (60. bol.)*, Universitat de València, Valentzia.

Muxí, Z. (2013): «Postsuburbia: después del espejismo», in Z. Muxí (koord.), *Postsuburbia: rehabilitación de urbanizaciones residenciales monofuncionales de baja densidad*, Comanegra, Bartzelona.

Muxí, Z. (2009): *Recomanacions per a un habitatge no jeràrquic ni androcèntric*, Institut Català de les Dones, Bartzelona.

Rainero, L. eta Rodigou, M. (2003): *Indicadores urbanos de género instrumentos para la gobernabilidad urbana*, 51º Congreso Internacional de Americanistas.

Woolf, V. (2001) (jatorrizko ed. 1929): *Una habitación propia*, Seix-Barral, Bartzelona.

///